

ANDRAZKOEN ESPAZIOAREN MUGAKETA ETA ARAKETA-PROZESUA EUSKAL PENTSAMOLDE HERRITARREAN

Abel Ariznabarreta Zubero (*)

RESUMEN

Es una característica de las sociedades tradicionales el hecho de establecer implícitamente una relación de oposición entre el territorio habitado por ellas mismas y el resto del espacio desconocido e indeterminado que les circunda. Por extensión, podemos trasplantar esa diferenciación a otros niveles de conceptualización del espacio, tales como utilización de elementos, formas de comportamiento, organización social, etc.

Por otra parte, lo desconocido produce un sentimiento de temor y conlleva la necesidad de protección, pero al mismo tiempo, también produce una atracción, un deseo de conocimiento, de ocupación de dicho espacio. En la mentalidad popular vasca, lo desconocido y ese doble sentimiento que origina se manifiestan en multitud de relatos y creencias relativos a Mari y las Lamias.

SUMMARY

It is a characteristic of traditional societies the opposition they usually establish between the inhabited land and the unknown and unlimited surrounding territory. The differentiation might also apply to other conception levels of the space, such as the use of different elements, patterns of behaviour, social organisation, etc.

The unknown produces a sense of fear and, consequently, a need for shelter, but at the same time it also produces an attraction, a wish to know, to retrieve that space. In the Basque popular thinking, the unknown and this twofold feeling it produces, are shown in many tales about Mari and the Lamias.

LABURPENA

Gizarte tradizionalen ezaugarri bat, euren bizi diren lurraldearen eta inguruko espazio ezezagun eta muga-gabearen artean ezartzen duten kontrakotasunean datza. Desberdintzapen hori beste konzeptualizazio maila batzuetara ere hedatu dezakegu eta espaziotzat hurrengo alderdi hauek hartu, hala nola, elementu-erabilera, portae-ra-motak, jarduerak, gizarte-antolamendua,...

Ezezagunak beldur-sentimendua eta babes-premia sortzen du. Baina era berean, ekarpen bat ere sortzen du, ezagutu gura bat, espazio hori harrapatu eta kontrolatu nahia. Ezezaguna eta horrek sortzen duen sentimendu bikoitz hori, Mari eta Lamiei buruzko hainbat eta hainbat ipuin eta sineskeretan agertzen zaigu euskal pentsamolde herritarrean.

(*) Laratzu Taldea, Dima. Bizkaia

1. MITOEN FUNTZIO SOZIALA: HERRI-PENTSAMOLDEAREN MODELATZAILE

Egoera hegemoniko erreal bat edo gizatalde batek beste batekiko edo batzuekiko duen nagusitasuna justifikatzeko modu bat izan da bai batzuek bai besteek onartuko dituzten kontzientzia-egoerak sortzea. Gizarte bakoitzak bere errealitate sozialari buruzko interpretazioak eraikitzen ditu, datu soziokulturalak justifikatu, arrazoinalditu eta zilegierazi asmoz. Arrazionalizazio moduan agertzen zaizkigun hauek izaera tradizional itxurako mezu eta diskurtso bidez ekoiztutako eta interpretatutako errealitate historikoaren kontrol sistema bat osatzen dute.

Arrazionalizazio hauek herri baten kulturaren barne inkonzientearen proiektzioak izan litezke, eta talde baten eta bestearen edo sexu baten eta bestearen arteko erlazioak arautzen dituen egitura asimetrikoaren izaera tradizionala mantentzean eta legeztatzean datzan funtzio soziala duten sinbolo-sistemen itxuran azaltzen dira. Behin legeztatzen hori lortuz, ez da zalantzan ere jartzen emandakotzat onartzen den asimetria sozial hori (ikus Buxó, 1988: 85-96).

Gizarte batek dituen mitoen tematika da (tabu, erretra, esamolde eta abarrekina batera) kultura tradizionalaren formulatariko bat non azaltzen den jokabide jakin batzuei buruzko baloreen eta jarrerren konsensusa.

Etiologikoak deritzaien mitoak izakien eta gauzen jatorria azaltzeaz arduratzen dira; egungo errealitateen azalpena edo zergatia ematen saiatzen dira nahiz eta ez izan, ezinbestean, osotasun koherente bat zertan osatu beharrik. Era horretako mitoetan, orokorrean, gizonezkoaren nagusitasuna ematen da andrazkoarekiko; hobeto esanda, gauzen arteko oreka eta ordena irudikatzen duen gizonezko-printzipioaren nagusitasuna giza-nahasketa irudikatzen duen andrazko-printzipioarekiko. Orokorrean, dagozkien testuinguruetan, azalpen hauek hasierako nahasketa sozial bat agertzen digute, gero, izaki-gizonezkoaren eskuhartze arau-erlearen bidez bakarrik gaindituko dena, hain zuzen, gizarte horretan ordena ezarriko duen aldaketa bultzatuz: berrantolaketa horren bitartez andrazkoak sinbolikoki boteretik jaurtikiz gizonezkoek aurrera eramango duten "ordo" berria ezarriko dute. Status berria eta gizarte horretako ordena sexu-soziala justifikatzera eta arlo horretan planteia litekeen edozelako aldakuntzaren desegokitasuna frogatzera datozen hainbat mito eta erritu sortuko ditu gizakiak.

2. EZEZAGUNAREN BELDURRA ETA ERAKARPENA

Gizarte tradizionalen ezaugarri bat, eurek bizi

diren lurraldearen eta inguruan duten espazio ezezagun eta mugagabearen artean tazituki ezartzen duten kontraktasunean datza. Lehenengoa, **mundua** da, bizi diren eta antolatutako dagoen espazioa; eta bestea, mugaz handik hedatzen den espazio ezezagun, kanpotar-arrotz, *kosmo* bilakatuko duen ordena oraindik ezarri ez zaionez *kaos*aren jatorriko desegituraketaren partaide dena. Baina horrexegatik berorregatik espazio ezezagun hori eskuratu beharreko zerbait den heinean ezagutu, norbereganatu eta kosmotzeko gogoia sortzen du.

Espazio kontzeptuaren hedaduraz, desberdintzapen hori beste kontzeptualizazio maila batzuetara ere alda dezakegu eta espaziotzat hurrengo alderdi hauek hartu, hala nola, elementu-erabilera, portaera-motak, jarduerak, gizarte-antolamendua,...; logika batekin -geurearekin, jakina- antolatutako **barruaren** eta dezifratzeko koderik ez dugunez gure begientzako antolatu gabe dagoen **kanpo** ezezagun horren arteko desberdintzapen hori alderdi horietan ere ematen delako.

Euskal pentsamolde herritarrean "*eguna egunez-koarentzat eta gaua gauenez-koarentzat*" esaerak garden eta argiro adierazten du egunaren, gizatiarraren alegia, eta gauaren, hau da, ezezagunaren, gaueko jeinuaren, edo hobe, ezezagunaren agerpen ezberdinen bidez pertsonifikaturiko gauaren artean dagoen banalerroa. Gizatiarren arteko inor banalero hau gainditzera ausartuko balitz, ezezaguneko periletara arriskatzen da: horrela, bere adorea erakusteko gauez mendian distiratzten ari zen argiraino hurreratzeko gai zela-eta dema egin zuen Aramaioko mutila zigorretik salbatu zen, bai, baina ez agindu gogorra hartu gabe: "*beste bein ezegik olako temarik egin. Eguna dok ila-koentzat egina, gaba neulakoentzat*" (Azkue, 1959:II,190).

Ezezagunak beldur, ikara-sentimendu bat sortzen du eta babes-premia darama bere baitan. Hori etxe barruan aurkituko du, batez ere, espazio babestua ezer bada hauxe baita. Baina era berean, ezezagunak erakarpen bat ere sortzen du, ezagutu gura bat, espazio ezezagun hori harrapatu nahia.

Gaua, hauteman daitekeen iluntasuna, arau eta ordena baten arabera antolatutako **geure** espazio kosmotutik ikusita, izango litzateke beldur/erakarpen eragin bikoitz hori sortzen duten elementu guztien agerpen sintetiko edo hierofania.

2.1. MARI ETA LAMIAK

Ezezaguna eta horrek sortzen duen sentimendu bikoitz hori euskal pentsamolde herritarrean, Mari eta lamie buruzko hainbat eta hainbat ipuin eta sineskeratan agertzen da. Mari, gauaren pertsonifikazio zehaztat hartzen ez den arren, gaueko eta ilargiaren eremuetako jainkosa bat da; lamiek ere badute horre-

lako zertxobait, eguna heltzearekin, oilarrak kukurruku egiten duenerako, alegia, hilkorrak zigortzeko duten ahalmena desagertzen zaielako.

Mari, Euskal Herrian beste jainko batzuei iratxe-kitzen zaizkien funtzio asko bereganatzea lortu duen andrazko jeinu bat da; euskal mitologiako jainkosa nagusia. Jainkosa honen izenen artean, zaharrena **Mari** dela dirudi; Mari izenari, herri edo eskualde bakoitzean, herriko sineskeren arabera jeinua agertu ohi den mendi edo haitzuloaren izenak laguntzen dio (Txindokiko Mari, Marimuruko, Marimontaña, Anbotoko Damea, Señorea, Anderea edo Sorgina, ...).

Gaur beste izen batzuen artean **Lami**, **Lamin** edo **Lamiñ** deitzen zaien mitologiako beste jeinu batzuen izena ere Mari zen. Mari jainkosarekin zerikusi duten gaietariko asko ere besteekin elkarturik agertzen dira. Bestalde, herri batzuetan lamiakin lotzen diren ipuinak, beste herri batzutan sorginei eta jentilei ezartzen zaizkie. Gai-zikloen interferentzia asko egon da. Beraz pertsonaia horiei buruzko herri kontzeptua hasiera batean zein izan zen jakitea ez da erraza; gaiak lekutu eta bakoizteak, inoiz kontrajarriak diren formen ugaritasun handia ekarri du.

Hilkorren baitan beldurra eta erakarpena sortzen dituen ezezagunaren agerpen-zeregina euskal mitologian lamiaren figurak betetzen du. Anbibalentzia hau bere izateari buruzko esateetan agertzen da ("*izena duen guztia omen da*") eta batzutan bere jokabidearen eta eman dezakeen zigorraren beldurra erakusten dute zeharka ("*direnik ez da sinestu behar; ez direla ez da esan behar*"). Anbibalentzia berdina agertzen da euren izaera definitzerakoan ere: "*ez uste ùkhen lamiña güziak gaxto diela. Bada hetan ere orotarik, gizunetan bezala*" (Azkue, 1959:II, 233).

Euskal Herri osoan nagusi den iritzia, bere ipuinetan agertzen denetik, lamiak andrazkoak direla da, nahiz eta Zuberoan, salbuespen gisa, "lamia ar" eta "lamia eme"i buruz hitz egin (J. Caro Baroja, 1971:295). Pertsonaia hauen ezaugarri bat euren erre-alitatea ez ezagutzea da, behintzat bere itxura fisikolari eta batez ere bere gorputzaren beheko aldeari dagokionez, zeren goiko aldea emakumearena baita. Eta oilo-hankak bezalako zangoak dituzte (Dima), edo antzar zein ahatea bezalako oinak (Oñati, Elorrio, Arano); gorputzaren beheko erdia arrainak bezalakoak dute (Kortezubi, Zenarruza, Lekeitio, Deba, Mutriku). Edo bestela garaiera ttikiko emakumeak dira (Zeanuri, Orozko, Elantxobe), eta umeek lupetzean dabiltzanean uzten duten moduko oinatzak egiten dituzte ibiltzean (Orozko) eta begi bakar bat dute bekokiaren erdi-erdian (hau Orozkon, Zeanurin eta Elantxoben baino ez da esaten).

Beste alderdi misteriotso bat, bizilekua da: haitzulo, ibai, eta abarretan erdi-ekzutaturik bizi baitira; sarri gertatzen da pertsonaia hauek euren bizilekuarekin bat egiten dituztela (mendia, haitzuloa, lezea, ...).

Kasu hauetan pertsonaiari zaion beldurra, tokiaren beldur bihurtzen da eta, ikusiko dugun bezala, daitezkeen ondorio txarrak neutralizatzeko errituez baliatzen dira, adibidez Oñatikoa bezalako sineskeretan agertzen den honen antzekoez: "*Arantzazuko fraideek Aloña mendira igoten dute urtero hango leze batean bizi den Anbotoko Damari konjurioa egitera*" (Barandiaran, 1972:II,38). Beste kasu batzuetan zigorraren beldurrak eurei atsegin zaien opari edo eskaintzaren bat egitera behartzen ditu; opariok, gehienetan, lantzen duten lurretik edo zaintzen dituzten abereengandik ateratako eta gero eskuz landutako jeneroak izan ohi dira: Orozkon, pitxer bete sagardo eta labean egindako ogi bat uzten zaie (Barandiaran, 1972:II,200); Ultzaman gatzatua (Azkue, 1959:II,427), e.a. Beste toki batzuetan lamien arretarik izan gabe bizitzeko ardura izaten da besterik gabe, euren zigorrak ez hartzeko. Zegaman, adibidez, zera esaten da "*baten batek Mariri Aketegiko Damea izenez hiru aldiz deitzen baldin badio, hau gero bere buruaren ondoan jarriko zaio*" (Barandiaran, 1972:II,301).

Ez ezagutze honek beldurrarekin batera, erakargarritasun bat ere sortzen du hilkorrengan, eta horrek kalteren bat edo zigorraren bat ekar diezazkiekeela jakin arren ere jakingura hain izaten da handia non horri eusteko gai izaten ez diren: Aketegiko haitzuloa beldurrez beterik begiratzea auzartzen den artzaina; prozesioan doazenek duten beldurra mutikoak ontzia hartuko duela-eta ("*uzteko ta uzteko*") esaten diote), hala ere jakingurak indar gehiago du eta ohostu egiten du, zigorra irabaziz; Gaiztozulo lezera harriak jaurtikita herronka egiten dioten eiztariak bat-batean botatzen dituzte lurrera barrutik irteten diren haize eta hodei misteriotsoek, aldi berean leze barrutik datozen burdin-hots arraro batzuk entzuten dituztelarik (Barandiaran, 1972:I,301-302).

3. ESPAZIO EZEZAGUNAREN ARAKETA-PROZESUA

Lehenengo ikusi egiten dira; gero beraien espaziora sartu eta gauzak ohostu; ondoren eurekin kontaktatu eta harremanak ezartzen dira (opariak egin, hilkorrekin maitemindu, hauei laguntza eskaini edo eskatu, ...) eta neutralizatu egiten dira (bahitura, errieto eta konjurio babesleak, ...), azkenean beraien egozpena ere lortuz. Guzti honek araketa-prozesu bat eskatzen du kaosaren amaiera eta kosmoak, antolatua alegia, bere baitan duen ordenaren garaipena lortu arte.

3.1. ESPAZIOAREN OKUPAZIOA

Ugariak izateaz gain esanguratsuak dira Mari eta

lamiak ikusi dituztenek egiten dituzten deskribapenak. Batzutan emakume beltz eder bezala deskribatzen da (**emakume beltza** = ezezaguna; era berean, **ederra** = erakargarria), urrezko orraziekin orraztera eguzkitara irteten dena, adibidez Gordexolako Golbarrenda mendian dagoen La Torca del Moro izeneko lezekoa, edo Berrostegietako Zaldiran gazteluko (Barandiaran, 1972:II.19-20).

Beste deskribapen batzuetan **beltz** izate hori desagertu arren, beti dira andrazko izaki ederrak, gehienetan euren etxeetako atarteetan edo etxe barruan jarduera hauetarikoren bat egiten agertzen direnak: urrezko orraziz ilea orrazten edo txarrantxaz zein astalkaz lihoa lantzen (Dimako Baltzola koban, Beasaingo Murumendi haitzuloan, Arrasateko Kobandin, Anboton, Urdiain eta Altsasuren arteko Jentileioan, Abalzisketan, Zegaman, ...). Guttitan deskribatzen dira beste jarduera batzuk egiten; hala ere inoiz bai, adibidez Aketegin, asteazkenetan xabonadura eta ostiraletan ogia egiten dutela esaten baita (Barandiaran, 1972:I.301). Orokortzeko orduan, agian, Barandiaranek Azkoitian bildu duen Mariren deskribapenak balio lezake: "*Gabean illargi ederraren argi parean jartzen zan alakoxe emakume aundi-aundi, (...) illargi betearen musu borobilak bere burua inguratzen zuala, orrazten joaten zan*" (Barandiaran, 1972:I.289).

Ikustea bera, besterik gabe, gerta daiteke arrisku-tsu, zigor-zio: "*Gau batean Mari iruten zegoan Iturriberriganeko Trukarrian (Elosun) jezarrita, eta handik zihoan gizon batek ikusi zuen. Gizona Bergarara iritsi baino lehen ekaitz izugarri bat sortu zen*". Zegaman ere kontatzen dute antzeko zerbait gertatu zitzaiola Aketegiko haitzuloa beldurrez betarik begiratzera auzartu zen artzainari (Barandiaran, 1972:I.299).

Ikusi dugunez, Marik eta lamiek bereizgarri bezala erabiltzen dituzten lanabes eta tresna-mordo bat dago. Orrazia, txarrantxa, gorua, ardatza, arilkaria edo astalka. Alde batetik guztiak dira lihoa lantzeko erabiltzen diren tresnak; baina bestetik euretariko bik, orraziak eta txarrantxak alegia, antzekotasuna dute egitura eta funtzio aldetik: biek dituzte hortzak eta bata eta bestea erabiltzen dira zuntzak orrazteko, kasu batean ilea eta bestean lihoa. Goru-lanaren sinbologia eta sexualtasunarekin eta ematasun-hastapenekin duen erlazio mistikoa luze eta zabal aztertu dituzte beste autore batzuen artean M. Eliadek (1989:81-83) eta C. Gaignebetek (1984:47-60).

Logika berdinarekin interpretatu beharko lirake formen zein funtzioan hauekin zerikusi handia duten egitura berdintsuko beste tresna batzuk noizbait agertzea Mariren eta lamien zikloetan, adibidez eskuarea edo eskutaila eta area edo itaila, hauek ere lurra goldatzen, orrazten alegia, duten hortzez eraturik baitaude.

Lanabes hauek Mari eta lamienak dira; beraz, gizakiek benetan nahi dituzten erremintak. Horrexegatik esaten da sarritan urrezkoak edo urre-antzekoak direla, eskurapen/jabego horren gogoa nabarmentzeko (gehiago oraindik, justifikatzeko edo) asmoarekin. Lortzearen burrukan egingo duten edo bestela hartu duten mesederen batengatik esker-ronez eurek emango dizkieten tresnak dira. Ezezagunaren okupazio-prozesuaren barruan gaude eta horrexegatik era berean beldurgarria eta erakargarria den uanean.

Tresna hauek eta aitaturiko pertsonaia mitologikoek duten identifikazioa hain da handia non kasu batzuetan ez bakarrik den lamien tresna bereizgarri bat baizik eta horrela izatearen baldintzatat ere har daitekeen, hala nola Aizkorriko Damaren irudiaren sorrerako ipuinaren kasuan: "*Zegamako baserri batean alaba bat zuten senar-emazte batzuk bizi ziren. Alabak gauero orrazteko ohitura zuen eta orduak eta orduak ematen zituen lan horretan. Horixe dela-eta amak hainbat aldiz kendu behar izan zion orrazia eta ohera joateko agindu; baina halako batean haririka egiteaz azpeltu eta honako madarikazio hau jaurtiki zion: Hobe mila arraiok sekulorun sekulotako eramaten bazaituzte! Neska kolorez aldatu zen, ileak suaren antza hartu eta bat-batean desagertu zen*". (Barandiaran, 1972:II.18).

Gehiago oraindik; irudikatzen duen pertsonaiaren, hau da, lamiaren ezabaketarekin bukatutzat ematen den espazio ezezagunaren okupazio-prozesuan, goldak paper garrantzitsu bat jokatzeko du herri pentasimoldean: lamiak bizi diren espazioak goldatu egin behar omen dira eurekin akabatzeke (ikus I. Eraskina).

3.2. GAUZA ETA TRESNEN JABETZAPENA

Uste da gauza hauek irabaziak ekarriko dizkiela hilkorrei. Baina euskal mitologian, gauza horiek, ohostuak direnean eta gehienetan lekoraturik daudela, ez dute onurarik ekartzen mehatxuak baino eta horren aurrean bihurtu egiten dira.

Behin batean Gordexolako Torca del Moroko **emakume beltza** lekoraturik zegoela, artzain batek orrazia ohostu zion. Emakumea konturatu zenean benetan haserretu zen eta artzainari bota zion: "*Nere orrazia emaidazu, edo garbituko zaitut jo ta su*". Artzainak urrunetik bota zion ohosturiko orrazia eta harrapaladan egin zuen alde. Hilkorrek egindako orrazi-lapurreta honi buruzko ipuina hainbat tokitan ezagutzen da: Zeanuri, Zornotza, Bermeo, Elorrio, Lekeitio, Kortezubi, Markina, Ataun, Oiartzun, Berrostegietan, Okendo, ... (Barandiaran, 1972:II, 19-20). Ohosturiko beste gauza batzuk ere agertzen dira; Orozkon adibidez, urrezko orraziak gain Urigoitiko Arkotxa baserriko batek urrezko artza ohostu zien

Itzinako lamiei. Zeanurin, oster, Lanbreabe errotako etxandereak lihozko mairuak ohostu ziren Lamiñapozu osinean bizi ziren lamiei.

Oiartzunen kontaktzen dute Aiako Haitzetako zuloetan **jentilak** edo **mairuak** bizi zirela. Jentilesa batek haitzuloaren ahoan utzi zuen bere urrezko orrazia. Matxine baserriko neskamea haitzulo ondotik iragan zen eta orrazia ikusi; hartu eta etxera eramane zuen. Jentilesa gauzez baserrira joan, atea jo eta esan zion: *“Matxineko neskamea ekatzen nere orrazea; bestela emango diñet ere biziko ezurretako oñazea”* (Barandiaran, 1972:II,23).

Normalean, etxearen espazioan babesturik dagoen lapurraren kontra lamiak gauzez botatako madarikazio-mehatxuarekin osatzen da. Madarikazio-formula ezberdinak erabiltzen dira (Barandiaran, 1972:II 196-199). Kasu batzuetan, zigor-motaren bat gertatzen da, hauslearen heriotza bera ere izan daitekeelarik. Aian adibidez hilkor batek gauza bat ohosten dien ipuin batean, hilkorri santiamentu batean ematen zaio zigorra: *“Artzayak jun ziran prozesiyon Anbotoko kueba, eta Señora ardatzen ari omen zan. Kanpon urrezko kantiñak euki ta beakin jun zan mutikoskor batek kantiña ostu nai. Bestiak uzteko ta uzteko; baña ostu zunian ¡bunba! kantiñak tirua egin omen zuan. Gero illuntzian lota etorri ziranian, mutilla larri omen zan eta besten erdian lotan jarri omen zan; baña erdian jarri arren, arrastorik gabe galdu zan gaben”* (Barandiaran, 1972:I,296).

3.3. ELKAR LAGUNTZAKO HARREMANAK

Lekeition behin batean emagina zen emakume bati Okamikako kobara dei egin zioten lamia bat erditzeaz zegoela-eta. Lagundu ostean koban lamiakin jatera gonbidatu zuten. Eman zioten ogiak dei egin zion zuri-zuri-zuria zelako. Ogi-zati bat poltsikoan gorde zuen kontu handiaz etxera eramane eta familiari erakusteko. Baina bazkaria amaitu eta lamiak agurtzeko ordua heldu zenean ezin izan zen jezarlekutik jaiki; haiek, ogi-puzka baimenik gabe hartzearen gertatzen zitzaionaz konturatuz, mahai gainean uzteko eskatu zioten. Esana egin zuenean lamiak ogi osoa oparitu zioten etxera eramateko. Kortezubin ipuin berdina kontaktzen dute, baina Santimamiñeko jentilei ezarrita eta berdin Elantxoben ere, baina hemen Ogoñoko lezean gertatzen da; Iparraldean ere gai berdina biltzen dute hala Barandiaranek (1972:II, 202-203) nola Azkuek (1959:II,425).

Beste batzutan lamiak dira hilkorrei laguntzen dietenak. Azkoitiko ipuin batean adibidez Anbotoko Damak berak ematen dio laguntza olagizon bati: *“Bein Iretako ola-jaunak, olarik erabili ezin da, Anbotoko Damiei joan emen zitzaion. “Txunguraren azpian arlosa, –erantzun emen zion–, ta arlosaren*

azpian sapo handi bat; kendu zak, ta ibiliko dek” (Barandiaran, 1972:I, 294).

3.4. AHALMEN NEGATIBOEN NEUTRALIZAZIOA

Hilkorrengan izan dezakeen ondorio kaltegarri horren neutralizazioa erritu eta konjurioen bidez edo elementu babesleak erabiltza gauzatzen da. Erritu hauek batzutan berezko egurats-fenomenoetatik (oinaztarria, ekaitza, ...) babesteko erabiltzen dira, naturazgaindiko elementuen identifikazio edo ekoizkin direnez. Erritu hauetariko askok egun berezi bat dute egiteko, Gurutze Sainduaren Aurkikunde-jaiarekin (Maiatzaren 3a) bat etortzen direlarik. Elduaienen apaizak Marimuruko bizi den haitzulora igoten du konjurioa egitera hurrengo udan harririk egin ez dezan; Aian uste da egun horretako konjurioak Mari haitzulo barruan harrapatzen baldin badu, uda horretan haizeak eta ekaitzak ez direla haitzuloatik irtengo; egun horretan Mugiron ere aintzina prozesioan joaten ziren Mariren lezera konjurioa egiteko asmoaz.

Kortezubin hitz ematen dute ez zela harririk jausiten Anbotoko Andereari oparia urtero egiten ziotenen sorotetan (Barandiaran, 1972:I, 296-299). Ordizian eta Ataunen esaten dute Itsasondoko apaiza zazpi urtetik zazpi urtera igoten zela Muruko lezera Mariri konjurioa egitera. Oñatin, aldiz, esaten dute Arantzazuko fraideak direla Aloña mendira urtero igoten direnak Gaiztozulon bizi den Anbotoko Damari konjurioa egitera.

Herri pentsamoldeak babesle-izaera ematen dien elementuak era askotakoak dira: adibidez ohostu dieten aharia berreskuratzea Gaiztozulo kobara sartzen ausartzen den artzainak ezin du gaitzik jasan poltsikoan erruda eta apioa daramazkilako.

Azkuek (1959:II,428) Bermeon eta Aulestian bildu dituen ipuinetan elementu babesleak, apioaz gain, Gabon Gauean irunduriko lihozko haria edo hari horrekin egindako alkondara eta atorra dira. Logikaz, herri pentsamoldea kultura erlijioso-katolikoaz kutsatuz doan heinean ahalmen babesle hori beste elementu batzutan ere jarriko da, adibidez Azkuek Lapurdin Itsasu eta Ezpeletaren artean dagoen Mondarraingo lamiei buruz biltzen duen ipuineko hostia sakratuaren kasua (1959:II, 440).

3.5. EZABAKETA

Ezabaketa hau, kasu batzutan hitzak zehazki duen esanguran deskribaturik egon daiteke (bahitura, desgertaraztea, ...), baina askotan ezabaketa sinbolikoaren aipamena egingo da, edo figura horiek kristautasunera ekarri direlako edo, bestela, arrazoiria ekarri direlako: euren espazioak goldatuz edo etxera, giza-

kiak bizi diren espaziora eta beraz zeharo kosmotura sartuz.

Kristau-sinbologiaren bidez gizatartzeko saio honen eta hilkorren interesetarako arrakastaz guttitan burutzen den jardueraren adibide gisa, Azkuek Otxandion bildu zuen Mari Urrakarena (Anbotoko Dama izenez ere ezaugun dena) aipatuko dugu (1959:II,437): “*Mari Urraka gaztetxo zala, bere amak sarri askotan koba bateko andra bategana erotaten eban elizako egunetan. Aitak - Mari, oa elizara, -esanarren, amak beti arzulora, kobara beti erotaten eban alabatxoa. Neba abadeak elizara etzala joaten jakin ebanean, burdi baten sartu ta loturik elizpera eroan eban. Sakristeiarra estola-bila zan-artean, bere arreba gaiztotua su ta gar burdian bertan aidean joan zan. Orduraezkero or dabil Mari Urraka Oiztik Anbotora, Anbototik Oiza*”. Kristau-sinbologiaz ari garenez, agian luzezabalago aztertzea mereziko lukeen arren, ezin utzi aipatzeke Goñiko zaldunaren eta hainbat aldiz mitologia unibertsalean andrazkoaren irudia ordezkatu duen “serpientearren” arteko borroka (Barandiaran, 1972:II, 208-209).

Lamia etxe barruan sartzeari, hau da, kosmoan barneratzeari buruz eta, era berean, espazioak kosmotzeko goldaketak duen sinbologiarekin zerikusi duenari buruz, Azkuek Arratian (Bizkaia) bilduriko istorioa (1959:II, 219), lamiakin amaitzeko formula ematen duena, transkribatzen da I. eraskinean: “*Doniane-goizean yaioriko zekor nabar bi iteileaz errekan ibilita, galduko litekez lamiak*”.

Barandiaranek ere biltzen du nola Ataunen “*mundûn beste asko bezala, beñ batean Sasteiko (Ataun) gizona ementzeilen idikiñ bê ar'an bê sorôn. Alakoatên idi oriik eskapatzen emen dioia Lamiñosiñea bê ar'ea atzeti doêla. Ta osiñ ortati, sogiñ bat buruko illêtati ar'a-ortzetan trabauta zoeela atâ ementzien*”.

3.6. LAMIA ETA HILKORREN ARTEKO MAITEMINA

Lamia eta gizonen arteko maitemin-istorioen kasu batzuk badira. Adibidez, Arrasateko Garagartza baserriko gazte bat egunero joaten zen mendira ardiak ala zezaten eramatera. Behin batean gazte itxurako lamia batek, bizi zen haitzulotik urrez jantzita irten, artzainarekin topo egitera joan eta berarekin ezkontzeko eskatu zion. Mutila menditik itzuli eta bere amarekin kontsultatu zuen. Honek, mendiko emakumearen oinei begi emateko aholkua eman zion. Artzaina emakume gaztea ikustera joan zenean hau, ahari baten gainean eserita, orrazten ikusi zuen eta ahatearen antzeko oinak zituela konturatu. Eta ez zuen nahi izan harekin ezkondu. Baina gero gaisotu eta hil egin zen. Lamia bere hiletara joan zen, baina ez zen heldu Garagartzako elizako ateraino baino (Barandiaran,

1972:II,195). Istorio honen aldaerak, beste batzuen artean, Orozkon, Kortezubin eta Zeanurin bildu dira (hemengoetan hatzaparren antzeko oinak ditu). Azkuek Otxandion bilduriko moldaketak (1959:II,426) elementu interesgarriak dakarzki eta lan honen II. eraskinean dator osorik.

Egoera hauek oso-guttitan amaitzen dira ezkontzan; baina ezkontzeko kasuan ere porrotera bideraturik daude: “*Murumendiko Dama sarri agertzen zen bere kobaren ondoan emakume ederraren itxurarekin. Beasaingo Burugoena baserriko gazte bat berarekin maitemindu eta ezkondu zen. Baina gero konturatu zen bere emaztea ez zela elizara joaten eta elizkizunetara joan zedin konbentziarazteko modurik ere ez zegoen eta ez zuen inola ere nahi ezkontzan izan zituen zazpi seme-alabak bataiatu eta erlijioaren arabera hezterik. Guzti hori ikusita, emaztea eta seme-alabak gurdian hartu eta elizara eramatea ezabaki zuen. Baina elizatik hur zeudela, emaztea garrez beterik erretan jarri zen eta aidean igonaz Murumendi bere aintzineko bizilekura itzuli zen*” (Barandiaran, 1972:I, 293).

4. GOGARPEN BATZUK

a) Ezberdindu beharra dago herri baten kultur eraikuntzetan andrazkoen espaziotzat hartzen diren hoiek duten balorazioa eta aipatu herri edo elkarte horretako lehengo zein oraingo gizarte-errealitatean emakumeak izan duen lekua: lan-mota hauetan agertzen diren datuak, bi planoetariko lehenengoren aipamena argiro egiten dutenak alegia, ezin dira transferitu emakumeak euskal gizarte tradizionalan izan duen egoera errelera.

b) *Natura versus* kultura dikotomian andrazkoaren sexu-errolak naturalaren konnotazioa du eta sinbolikoki era zeharo orokortuan kokatzen da naturaren munduan, hala beste lurralde batzuetako kulturen antropologia-azterlan entzutetsuenetan (C. Levi-Strauss, 1968) nola gure euskal gizarteari berari buruzko lanetan (Teresa del Valle, 1983). Baiezpen-ildo hau argi agertzen da alaba haitzulora, naturara alegia, daraman emakume-amaren istorioa bezalakoetan, aitak elizara –kulturara– joan dadin nahi duen bitartean; gero alaba sorgin (hau da, naturaren indarrak administratzen dituen abadesa) bihurtzen da, bere neba abade egiten den bitartean.

c) Hala ere, istorio batzuetako xehetasunen analisiak eta interpretazioak *natura versus* kultura dikotomia horri buruz ñabardura batzuk egitea aholka diezaigukete. Lamiaren eta gizakien arteko maitemin-istorioetan zera hauteman dezakegu:

- Naturaren (oihana) eta bertan bizi den emakume gazte eta ederraren arteko identifikazioa.
- Natura-espazio horren eta etxea, ezer bada espa-

zio sakratuaren arteko jazargoa: lamiak jarraitu egiten dio, baina ez da sartzen ez bere etxean ez elizan; gaztea etxe barruan sartzeko dator oihanetik eta ez da gehiago irtengo, e.a. Amets egiteko toki egokia den oihan-espazioa (irreala beraz) eta amets hori, kontrastatzean, derrigorrez desagertarazten duen mundu erreala (etxea, gizartea) kontrajarririk daude: irrealia ez da existitzen edo ezina da. (Ikus R. Gonzalez Quevedo, 1992:17-23, “xana” asturiarrari buruz hitzegiterakoan).

– Baina kultur espazio honetan, etxean alegia, emakume-amaren irudia, normalduaren defendatzaile gisa agertzen da eta herri pentsamoldean ezberdintasun bat dago emakume-naturaren (gaztea eta ederra, ezezaguna eta nahi dena) eta emakume-amaren (etxearen, hau da, *ordo* ezarriaren zaintzailea) sinbolismoaren artean.

Analisi orokor honetatik, beste hautemate zehatzago batzuk ere egin ditzakegu:

i) Azkuek baturiko maiteminaen istorioaren Bizkaiko moldaketan, lamiarekin ez ezkontzeko seme-gazteari aholkua emateko orduan ikus daiteke nola eusten diren elkarren artean kulturaren sinbolo eta defendatzaile gisa, emakume-amak bata eta apaizak bestea irudikatzen dituzten “etxea” eta “eliza”. Natura/kultura dikotomian dagoen espazio-mugaketari eta sinbolo-lekumenari buruz jadanik esandakoaz gain (gorago aipaturiko ñabardurekin), beste alderdi bat ere antzeman dezakegu: herrian oraindik bizirik irauten duen hasierako erlijiotasunaren –bere espazio sakratu, etxea, eta bertako abadesa den etxeoandreakin– pentsamoldetik erlijio katolikoaren erlijiotasun ofizialak –bere espazio sakratu, eliza, eta bere apaizekin– irudikatutako monoteismorako iragaketa kulturalki integratzeko premia. Bi agerraldiak gainjartzen dira istorio berean, gizarteak (giza-arteak) ezarritako kultur-ordena **errealaren** defendatzaile-zereginetan, **irrealak** egiten duen mehatxuaren aurrean elkartu eta indartzeko.

Honetan argi eta garbi ikusten da ipuin tradizionalak, bera sortu zuen gizartearen balioak isladatu eta indartzen dituela; berari loturik dago denboraz eta espazioz. Baina une bakoitzean hartzen duen forma bera ere, leundu eta berrikutu duten eginkidetzen bidez lorturiko heltze-prozesu geldo baten emaitza da, egileok aldi bakoitzean moldaketa ezberdina baina era berean aurrekoarekin zerikusi duena eta gizarteari une haretan defendatzea interesatzen zaizkion balioetara egokitu eta isladatzen dena burutzen saiatzen direlarik. Denboran zehar garaturiko prozesu honi talde-sorketa deitzen zaio.

ii) Andrazkoaren irudia, naturalaren irudikapen sinbolikotzat jotzen diren arauetara lotugabeko jarduera-eremuarekin kontrajarririk dagoen kultur espazioan sartuz doan heinean, espazio mugatu eta arautua esleitzen zaio. Dena den, kultur espazio orokorra-

ren baitan andrazkoaren irudiarentzat kultur-ghetto baten (“*domus*” edo etxearen espazioa eta ama eta etxeoandre egiteko bikoitza bide) esleipen-prozesuan mitologiaren egitekoa azpimarratzeak ez du ukatzen emakumeak historian zehar burubaiespen-mailak lortuz joateko duen gaitasuna, kultura nagusiaren beraren elementu batzuk beretzat hain kaltegarri ez izateko moduan manipulatzeko estrategiak erabiliz (ikus Dolores Juliano, 1992), baina hala ere beti gizonezkoak ezarritako eskema dominatzailearen barruan.

iii) Ezarritako gizarte-ordena mantentzeko “esane-kotasun-printzipioak” duen funtsezko garrantzia eta mito hori erabiltzeak duena herri pentsamoldean aurrerantzean ere indartzeko: horixe baita dagoen “*status quo*”-a justifikatzeko eta era berean aurrerantzean ere jarraitzeko bermea. Gizonezkoaren boterea, gizarte-antolamenduaren sisteman ezarrita dago, baina behin eta berriz agertzen da aginpidea galtzeko beldurra: boterea indarrak (indar fisikoak zein arrazonaturiko argumentazioak) ezar daiteke, baina indar hori bere esana betetzen den neurrian bilakatzen da nagusigo. Hementxe datza “esane-kotasun-printzipioaren” defentsa eta justifikazioaren garrantzia (eta obsesioa).

Ezarritako arrazoizko logikari emakumeak esanik ez egitearen arriskua, gizateriaren sorketa eta giza-pertsonaren egoera (Adan eta Ebaren mitoa) azaltzen saiatzen den mitoaren oinarri-oinarrian dagoen gauza da. Etxea-sendiak irudikatzen duen ezarritako hierarkiari esanik ez egiteak dituen arriskuak (esanik egiten ez duen alaba eta lamia bihurtzen dena) azpimarratu nahi dira eta, ondorioz, ezarritako gizarte-ordena mantentzeko balio horrek duen garrantzia indartu, banako zorientasunari eta biziari berari ere uko egin beharra izateraino (gizakiaren eta lamiaren arteko maiteminezko harremanak). Gizaki-gizonezko batek araua hausten duenean (lamiarekin ezkontzen denean adibidez), ondorio txarrak dakartzio hala bere buruari nola gizarte-antolamenduari osoari.

iiii) Espazio ezezagunen eta berrien goldaketa eta araketaren sinbologiari dagokionez, M. Eliadek esaten du eskualde basatiak eta landugabeak, kaosari parekatutik daudela eta oraindik bereizten ez den, eragabeko eta sortu aurreko modalitatekoak direla. Horrexegatik holako lurralde baten jabegoa hartzen denean, hau da, ustiatzen hasten denean, sorketa-ekintza sinbolikoki berresten duten errietoak burutzen dira: landugabeko inguru hori lehendabizi kosmotu egiten da eta ondoren bizitzera joan. Bizitzeko eta bizi-espazio bezala erabiltzeko okupatzen diren lurralde guztiak kaos direnez, kosmo bilakatu behar dira aldeztu aurretik; hau da, errieta-eraginez erreal bihurtzen dituen **forma** bat ematen zaie. Erreal indarraren, eraginkortasunaren eta iraupenaren baliokide da; eta erreala, beste guztien gainetik,

sakratua da, sakratua bakarrik delako "izan" modu absolutuan, berak bakarrik egiten duelako eraginkorki, berak bakarrik sortzen dituelako gauzak eta irau-narazten. Errealaren obsesioa, aintzinakoak duen "izanaren" egarria, "sagaraketa-ekintza" zenbatezinek (gauza, espazio, pertsona eta abarrenek) adierazten dute.

ERASKINAK

I. ERASKINA.- LAMINEN AZKENA (Azkue, 1959:II, 217-219)

Arratiako Igorre deritxon basauritxoan, Garamendi izeneko etse baten gizon aandi bat, itzäla, Txilibristo eritxona, bizi zan. !Indarretan baeukan, indarretan! !Jesus, Maria ta Jose! Urkusun gora Garamendira burdia lepoan eroaten euan ta kontuak atara. Errekondo baten orrazi bat, lamin-orrazia, aurkitu euan bein eta kolkoan aurrera yoan gure Txilibristo. Lamina batek esan eutsan

– Txilibristo, ekazu orraziä, ezipabere nik egingo dot zure biziä.

Txilibristok laminäa saputzeti oratuta etsera, Garamendira, eroan euan. Lamina au beste guztiak légez ezne-zale utsä zan. Egunak eta egunak igaro ddakiezan etsekoai, baituta euken pisti areri ezer eraso ezinik. Mutua zirudian. Bein, bera sutondoan egoala, eznea mazkeluan irakiten asi zan. Lamiak eznea arpelik galdu ezeitean, berba egiteari emon eutsan, auxe zinoala:

– Txuriä gora, txuriä bera.

Etsekoak orduan berba geiago eragitearren gogor artu eudien. Batek lamiak zelan galdu eitekezan preguntau eutsan. Auxe erantzun euan:

– Doniane-goizean yaioriko zekor nabar bi iteileaz errekan ibilita, galduko litekez lamiak.

Auzorik auzo beingo baten zabaldu ziräan lamia-

ren berba onek, eta Arratiako gorta guztiak arakatu eudiezan Doniane-goizeko zekor nabar bila. Ganeko egunetan soloko zokilak austen baizen gogoz eragoien zekorrok iteilea erreketan narraz erabilten, lamiak uxatu gurarik. Ordura-ezketino ezta inguru arretan laminarik battxo bére arean azaldu".

II ERASKINA.- LAMINA BAT EZKONGAI (Azkue, 1959:II, 426-427)

"Anboto ta Arangioren bitarteko atxetan mutil bat artzain ibilten zan. Noizean bein lamiñak urteten eutsen. Guztiak dantzan aidean erabilten eben. Bera pozik. Batek etxeragiño laguntzen eutsan ta alkarregaz ezkontzeko egiunea egin eben. Lamiñäak gomutagarritzat atxikarrean elestun bat ifiñi eutsan. etxera badoa mutil ori ta

– Ama –esan eutsan etxandereari–, ama: ezkondu edo zerbait geuk bê oingotan egin bear dogu.

– I ezkondu!! Nogaz, mutil?

– Neskatila eder bategaz. Basora etorten ddat bera.

– Geiagoko barik ezkondu?

– Bai, ama.

Ama ori auzuneko abadeagaz itundutera yoan zan ta mutilari bê beste ainbeste eragin eutsan. Oni elizgizonak emondako burubidea auxe zan:

– Begiratuiook neskatilla orri anketara, ea zelangoak daukazan.

Mutilak urrengo egunean, emaztegeiagaz egonda gero, abadeagana yo ebanean,

– Paita-ankak daukaz –esaeran,

– Atzera emoiok elestuna –erabagi eban abadeak.

Badoa mutilla eta lamiñea agertu ddakonean elestun ori emon nai ta ezin atara ebilen Azkenean atz txikia ebagi ta, zapla!, yaurti eutsan elestun ta guzti. Etxeruntz etorrela atzetik yarraitu eutsan lagunak. Ogera yoan zan mutila ta etzan sekula yagi"

AIPAMEN BIBLIOGRAFIKOAK

- AZKUE, Resurrección Maria. 1959 *Euskalerrriaren Yakintza*, 2. ed., Madrid, Espasa Calpe.
- BARANDIARAN, Jose Miguel. 1972 *Obras Completas*, Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca.
- BUXO, M.^a Jesús. 1988 *Antropología de la mujer*. Cognición, lengua e ideología cultural, Barcelona, Anthropos.
- CARO BAROJA, Julio. 1971 *Los vascos*, 4. ed., Madrid, Ediciones Istmo.
- DEL VALLE, Teresa. 1983 "La mujer vasca a través del análisis del espacio: utilización y significado", *Lurralde*, 6, 251-269.
- DEL VALLE, Teresa (dir.) et al. 1985 *Mujer vasca. Imagen y realidad*, Barcelona, Anthropos.
- ELIADE, Mircea. 1975 *Iniciaciones místicas*, Madrid, Taurus.
- 1983 *Lo sagrado y lo profano*, 5. ed., Barcelona, Labor.
- GAIGNEBET, Claude. 1984 *El carnaval. Ensayos de mitología popular*, Barcelona, Alta Fulla.
- GONZALEZ-QUEVEDO, Roberto. 1991 "Roles sexuales y cambio social en un valle de la cordillera cantábrica", *Cuadernos de Antropología*, 12, Barcelona, Editorial Anthropos.
- HORNILLA, Txema. 1989 *La mujer en los ritos y mitos vascos. Una teoría antropológica del antagonismo masculino/femenino*, Donostia, Txertoa.
- JULIANO, Dolores. 1992 *El juego de las astucias. Mujer y construcción de modelos sociales alternativos*, Madrid, Horas y Horas.
- LEVI-STRAUSS, Claude. 1968 *Lo crudo y lo cocido*, México, FCE.

